

Juan Irazusta

DOKTRINA KRISTIANA

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Bertsio elektroniko honen egilea: Josu Landa Ijurko.

Iturria: *Doctrina cristiana*, Juan de Yrazusta. Francisco de la Lamanan Echean, 1797.

<http://klasikoak.armiarma.com/>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00524.htm>

DOKTRINA KRISTIANA

AITA GASPAR ASTETE
Jesuitak erderaz egiña.

Ipiñi zuan euskeraz
D. JUAN DE IRAZUSTA,
Erretore Hernialdekoak,
zeña da Probinzia Gipuzkoakoan.

Eta añaditu zion enkarnazioko,
eta Eukaristiako Misterioen explikazioa,
baita ere Konfesio on baten kondizioak,
eta Akto Fedeko, Esperantzako,
ta Karidadekoak.

BEAR DAN BEZELA,
1797 Urtean.

Tolosan:
Liburugille D. Francisco de la Lamaren Etxean.

ABISOA PEKATARI GUZIENTZAT ONA

Utzi ezazu, pekataria,
len baño len pekatua,
aparta zaite okasiotik
zeñean zauden sartua.

Izan diteke gaurko gabea
zu oean iltzea,
baita ere biar baño len,
infernuetan sartzea.

Utzi ditzagun bizio oek,
zeñak gauzkatzen galdurik,
eta eskatu barkazioa,
Jaungoikoari bertatik.

Liburu onetan esaten dana
sinistu, eta obratu,
goza dezagun beti gloria,
an gaitezen deskansatu.

DOKTRINA KRISTIANAREN INTRODUZIOA

Kristau fiel guziak
daude obligaturik,
Gurutzea adoratzeraz,
eta debozio izatera:
zergatik Kristok an
redimitu ginduan
gure pekatuetatik,
ta etsaiaren mendetik.

Argatik zaite jarri,
santiguatzeraz sarri,
baita ere ziñatzeraz,
iru gurutze egitera:
bekokian lenena,
aoan bigarrena,
bestea bularretan,
iru leku oietan.

Bekokian libratzeagatik
pensamentu gaiztoetatik,
aoan libratzeagatik
itz gaiztoetatik,
bularretan libratzeagatik
obra ta deseo gaiztoetatik;
egizu bada bereala
esaten dezula onela:

Gurutze Santuaren señaleagatik + gure
etsaiaetatik + libra gaitzatzu gure Jauna, eta Jaun-
goikoa. + Aitaren, ta Semearen, ta Espiritu San-
tuaren izenean. + Amen, Jesus.

PATER NOSTERRA

Aita gurea, Zeruetan zaudena: santifikatua
izan bedi zure izena: betor gugana zure reinua,
egin bedi zure borondatea, nola zeruan, ala
lurrean: Egun iguzu gure eguneroko ogia: ta
barka gizkigutzu gure zorraz, guk gure zordunai
barkatzen diegun bezela: eta ez gaitzatzula utzi
tentazioan erorten: baizikan libratu gaitzazu gai-
tzetik. Amen Jesus.

ABE MARIA

Abe Maria, graziaz betea, Jauna da zurekin: bedeinkatua zerade zu andre guzien artean, eta bedeinkatua da zure sabeleko frutua Jesus. Santa Maria, Jaungoikoaren Ama, erregutu ezazu gu pekatariokgatik, orain, eta gure eriotzako orduan. Amen Jesus.

KREDOA

Nik sinisten det Jaungoiko Aita guziz poderoso Zeruaren, eta lurraren Kriadoreagan. Eta aren Seme bakar Jesu-Kristo gure Jaunagan. Zeña konzebitu zan Espiritu Santuaren obraz, eta birtutez: Jaio zan Maria Birjinagandik. Padezitu zuan Ponzio Pilatos-en agintearen azpian, izandu zan kruzifikatua, illa eta enterratua. Jetxi zan infernuetara, piztu zan illen artetik irugarren egunean. Igo zan Zeruetara, an dago eseririk Jaungoiko Aita guziz poderosoaren alde eskuitik. Audik etorriko da biziak, ta illak juzgatzero. Nik sinisten det Espiritu Santuagan. Eliza Ama Santa Katolika, Santuen Komunioa, pekatuen barka-

zioa, aragiaren resturrezioa, eta bizitza sekulakoa. Amen.

SALBEA

Jaungoikoak salba zaitzala Erregiña, miseri-kordiaren Ama, bizitza, dulzura, ta esperanza gurea; Jaungoikoak salba zaitzala zure deiez gaude Ebaren ume desterratuak. Zugana gaude suspirioz, sentimentuz, eta negarrez, negarrezko leku onetan. Ea bada, gure Abogada, itzuli itzatzu gugana zure begi miserikordiosoak. Ta destierro onetatik irteten geradenean erakutsi eginguzu Jesus, zure sabeleko frutu bedinkatua. O Klementisinta! O Piadosa! O Miserikordiosa! O Dulze Birjiña Maria! Erregutu ezazu gugatik, Jaungoikoaren Ama Santa, merezi dezagun alkanzatzea Jesu-Kristoren prometitua. Amen.

JAUNGOIKOAREN LEGEKO MANDAMENTUAK DIRA AMAR

Lenengo irurak pertenezitzen zaizka Jaungoikoaren onrari, eta beste zazpirak proximoaren probetxuari.

Lenengoa, Jaungoikoa amatzea gauza guzien gañean.

Bigarrena, Juramentu alferrik ez egitea.

Irugarrena, Jai egunak santifikatzea.

Laugarrena, Aita, eta Ama onratzea.

Bostgarrena, iñor ez iltzea.

Seigarrena, lujuriako pekatuak ez egitea.

Zazpigarrena, ez ostutzea.

Zortzigarrena, testimonio falsorik ez jasotzea, eta gezurrik ez esatea.

Bederatzigarrena, proximoaren emazterik ez deseatzea.

Amargarrena, besteren gauzarik ez deseatzea.

Amar mandameutu oek enzerratzen dirade bitan: serbitzean, eta amatzean Jaungoikoa gauza guzien gañean ta proximoa geren buruak bezela.

ARTIKULU FEDEKOAK

DIRADE AMALAU

Lenengo zazpirak pertenezitzen zaizka Dibinitadeari, eta beste zazpirak gure Jaun Jesu-Kris-

to Jaungoiko, eta gizon egiazkoaren Humanidade Santuari.

*Dibinidadeari pertenezitzen
zaizkanak dirade oek.*

Lenengoa, sinistea Jaungoiko guziz Poderoso bakar bategan.

Bigarrena, sinistea Aita dana.

Irugarrena, sinistea Semea dana.

Laugarrena, sinistea Espiritu Santua dana.

Bostgarrena, sinistea Kriadorea dala.

Seigarrena, sinistea Salbadorea dala.

Zazpigarrena, sinistea Glorifikadorea dala.

*Humanidade Santuari pertenezitzen zaizkanak
dirade oek.*

Lenengoa, sinistea Jesu-Kristo gure Jauna Gizona dan partetik, konzebitu zala Espiritu Santuaren obraz.

Bigarrena, sinistea jaio zala Santa Maria Birjiñagandik Señora au zala Birjiña Kristo jaio baño len, jaiotzean eta jaio ezkeror.

Irugarrena, sinistea errezibitu zituala eriotza, eta pasioa, gu pekatariok salbatzeagatik.

Laugarrena, sinistea jetsi zala infernuetara, eta aren etorrera santuaren itxedeten zeuden anima justuaek libratu zituela.

Bostgarrena, sinistea Resuzitatu zala illen artetik irugarren egunean.

Seigarrena, sinistea igo zala Zeruetara, eta dagoala eseririk Jaungoiko Aita guziz Poderosoaren alde eskuitik.

Zazpigarrena, sinistea etorriko dala biziak, eta illak juzgatzera; au da, onai ematera Gloria, zerren aren Mandamentuak gorde zituen, eta gaiztoai pena sekulakoa zerren gorde ez zituen. Amen.

DOKTRINA KRISTIANAREN DEKLARAZIOA GALDETZEN, TA ERANTZUTEN DALA

GALDETZEN DET: Zerade Kristaba?

ERANTZUTEN DET: Bai, Jaungoikoaren graziaz.

G: Kristabaren izen ori norgandik izan zenuan?

E: Kristo gure Jaunagandik.

G: Zer esan nai du Kristabak?

E: Kristoren Gizona.

G: Zer aditzen dezu Kristoren gizonagatik?

E: Kristoren Fedea deban gizona, zeña profesatu zeban bataiatzean, ta dagoana ofreziturik aren serbizio santura.

G: Zer da Kristabaren señailea?

E: Gurutze Santua.

G: Zergatik?

E: Zergatik dan Kristo kruzifikatuaren figura; bada gurutzean redimitu ginduan.

G: Zenbat modutan egiten du Kristabak señaile au?

E: Bitan.

G: Zein dirade?

E: Ziñatzea, eta Santiguatzea.

G: Zer gauza da ziñatzea?

E: Iru gurutze egitea eskuiko eskuaren aurreneko beatzarekin, lenengoa bekokian, bigarrena aoran, irugarrena bularretan, itz egiten dala Jainko gure Jaunarekin.

G: Egin ezazu nola?

E: Gurutze Santuaren señaleagatik + gure etsaietatik + libra gaitzatzu gure Jauna, eta Jaungoikoa +.

G: Zergatik ziñatzen zerade bekokian?

E: Libratzeagatik Jaungoikoak pensamentu gaiztoetatik.

G: Zergatik aoan?

E: Libratzeagatik Jaungoikoak itz gaiztoetatik.

G: Zergatik bularretan?

E: Libratzeagatik Jaungoikoak obra, eta deseo gaiztoetatik.

G: Zer da santiguatzea?

E: Egitea Gurutze bat eskuiko eskuaren beatz biakin bekokitik bularretaraño, ta sorbalda ezkerrekotik eskuikoraño, deitzen zaiola Trinitade Santisimoari.

G: Egin ezazu nola?

E: Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean. Amen. +

G: Noiz egin bear dezu señale au?

E: Obra onen bat asitzen dan guztian, edo arkitzen naizenean nezesidade, tentazio edo

peligroren batean, prinzipalmentee oetik jaikitzean, etxetik irtetean, Elizan sartzean, jaterakotan, eta lo egitekoan.

G: Zergatik orrenbeste bider?

E: Zergatik tenbora, eta leku guztian gure etsaiak persegitzen gaituen.

G: Zer etsai dirade oriek?

E: Mundua, Demonioa, eta Aragia.

G: Esan egidazu bada: Gurutzeak badu birtutea etsai orien kontra?

E: Bai Jauna.

G: Nundik izandu zuan Gurutzeak birtute ori?

E: Benzitzeagandik Kristok Gurutzean etsai oiek bere Eriotzarekin.

G: Gurutzea adoratzen dezunean, zer esaten dezu?

E: Adoratzen, eta bedeinkatzen zaitut Kristo, zergatik zure Gurutze santuarekin Redimitu zenuan mundua.

DOKTRINA KRISTIANAREN PARTIZIOA

Ekusi det Kristaba zerana, Kristabaren izenagatik, eta señaileagatik: Esan egidazu oraiñ: Zenbat gauza jakin bear ditu Kriskabak uso razoezkoa izatera eltzen danean?

E: Lau gauza.

G: Zeiñ dirade?

E: Jakitea zer sinistu bear duan, zer orazio egin bear duan, zer obratu bear duan, eta zer rezibitu bear duan.

G: Nola jakingo du zer sinistu bear duan?

E: Jakiñarekin Kredoa, eta Artikulu Fedekoak.

G: Nola jakingo du zer orazio egin bear duan?

E: Jakiñarekin Aita gurea, ta Elizako beste orazioak.

G: Nola jakingo du zer obratu bear duan?

E: Jakiñarekin Jaungoikoaren legeko Mandamentuak, Eliza Ama Santarenak, eta obra Miserikordiazkoak.

G: Nola jakingo du zer rezibitu bear duan?

E: Jakiñarekin Eliza Ama Santaren Sakramentuak.

DOKTRINA KRISTIANAREN LENENGO PARTEA, zeñean deklaratzeko diraden Kredoa eta Artikuluak

G: Nork esan zuan Kredoa?

E: Apostolnak.

G: Zertako?

E: Guri Fede santuko gauzak erakusteko.

G: Ta zuk zertako esaten dezu?

E: Kristabak degun Fede au konfesatzeko.

G: Zer gauza da Fedea?

E: Ikusi ez deguna sinistutzea.

G: Ikusi zenduan zuk Kristo jaiotzen?

E: Ez Jauna.

G: Ikusi zenduan iltzen, edo Zeruetara igo-
tzen?

G: Ez Jauna.

G: Sinisten dezu?

E: Bai Jauna sinisten det.

G: Zergatik sinisten dezu?

E: Zergatik Jaungoikoak rebelaturik, Eliza Ama santak onela erakusten duan.

G: Zer gauza dirade kristabak bezela dituzunak, eta sinisten dituzunak?

E: Ama Eleiza santa Erromakoak dituanak, eta sinisten dituanak.

G: Zer da zuk, eta Erromako Elizak dezuena, eta sinisten dezuena?

E: Artikulu Fedekoak, prinzipalmente, Kredoan dauden bezela.

G: Zer gauza dirade Artikulu Fedekoak?

E: Dirade Fedeko misterio prinzipalenak.

G: Zertako dirade Artikulu Fedekoak?

E: Emateko notizia Trinitade Santisimarena, ta gure Redentore Jesu-Kristorena.

G: Nor da Jaungoikoa?

E: Da gauza bat esan, eta pensatu al ditekean baño ere exzelenteagoa, ta admirableagoa; Jaun bat infinitamente Poderoso, Sabioa, Justoa, prinzipioa, eta fiña gauza guztiena.

G: Trinitade Santisimoa nor da?

E: Da Jaungoikoa bera: Aita, eta Semea, ta Espiritu Santua; iru Persona diferenteak, ta Jaungoiko egiazko bat.

G: Aita Jaungoikoa da?

E: Bai Jauna.

G: Semea Jaungoikoa da?

E: Bai Jauna.

G: Espiritu Santua Jaungoikoa da?

E: Bai Jauna.

G: Iru Jaungoiko dira?

E: Ez da Jaungoiko egiazko bat baizik.

G: Aita Semea da?

E: Ez Jauna.

G: Espiritu Santua da Aita, edo Semea ?

E: Ez Jauna.

G: Zergatik?

E: Zergatik personak diraden diferenteak, Jaingo egiazko bat bada ere.

G: Nola da Jaungoiko guztiz Poderosoa?

E: Zergatik bere nai izatearekin beste bage egiten duan nai duan guztia.

G: Nola da Kriadorea?

E: Zergatik ezer ezetik egin zituan gauza guziak.

G: Nola da Salbadorea?

E: Zergatik ematen digun grazia, eta barkatzen dizkigun pekatuak.

G: Nola da Jaungoiko Glorifikadorea?

E: Zergatik ematen dion Gloria, aren grazian perseberatzen duanari.

G: Jaungoikoak badu korputzaren figurarik guk bezela?

E: Ez du Jaungoikoa dan partetik, zergatik da Espiritu purua, baña badu Gizona dan partetik.

G: Iru Personetatik zein egin zan Gizon?

E: Bigarrena, zeña dan Semea.

G: Aita egin zan Gizon?

E: Ez jauna.

G: Espiritu Santua egin zan Gizon?

E: Ez jauna.

G: Zein egin zan bada?

E: Semea bakarrik, zeñari Gizon eginikm deritza Jesu-Kristo.

G: Beraz orrela nor da Jesu-Kristo?

E: Da Jaungoikoaren Seme bizia, Gizon egin zana, gu redimitzeagatik, eta nola bizi erakusteagatik.

G: Zer esan nai du Jesusek?

E: Salbadorea, edo libratzallea.

G: Zertatik salbatu, edo libratu ginduzen?

E: Gure pekatuetatik, eta demonioaren mendetik.

G: Zer esan nai du Kristok?

E: Untatua.

G: Zerzaz izandu zan Untatua?

E: Espiritu Santuaren graziaz, eta Doaiaz.

G: Kristo gure Jauna, nola izandu zau konzebitua, ta jaio zan Ama Birjiñagandik?

E: Egiten zuala Jaungoikoak obra milagrosoa.

G: Ta Kristoren Ama geroz beti izandu zan Birjiña?

E: Bai jauna, beti izandu zan Birjiña.

G: Zergatik nai izandu zuan ill Gurutzean?

E: Gu pekatutik, eta eriotzatik libratzeagatik.

G: Zer aditzen dezu Kristo ill ezkerro, jetxi zan infernuetara?

E: Ez det aditzen kondenatuen lekura, baizikan Linbora, Justuak zeudenera.

G: Nola jetsi zan?

E: Kristoren Anima Jaungoikotasunarekin uniturik.

G: Ta Korputza nola gelditu zan?

E: Jaungoikotasunarekin berarekin uniturik.

G: Nola piztu zan irugarren egunean?

E: Biurtzen ziradela juntatzera aren Korputza, eta Anima glorioso, ez geiago iltzeko.

G: Nola igo zan Zeruetara?

E: Bere birtute propioarekin.

G: Zer da egotea eseririk Aita Jaungoikoaren alde eskuitik?

E: Izatea Aitak ainbat Gloria, Jaungoikoa dan partetik, ta Gizona dan partetik, beste guziak baño geiago.

G: Noiz etorriko da biziak, eta illak juzgatze-ra?

E: Munduaren azkenean, edo akaberan.

G: Eta orduan ill guztiak bear due piztu?

E: Bai jauna, izandu zituzten anima, ta korputzarekin berarekin.

G: Zer sinisten dezu, esaten dezunean: Sinisten det santuen Komunioa?

E: Kristau fielak dutela parte: besteen ondasun espiritualetan, korputz baten mienbroak bezela, zeña dan Eliza.

G: Zer da Eleiza?

E: Da Kristau fielen Kongregazioa, zeñaren burua dan Erromako Aita Santua.

G: Nor da Aita Santua?

E: Da Kristoren Bikarioa lurrean, zeñari guziok gauden obligaturik obedezitzera.

G: Sinisten dezu Kredoa, ta Artikuluaz gañera beste gauzarik?

E: Bai Jauna, Eskritura Sagraduan dagoana, eta Jaungoikoak Elizari rebelatu dion guztia.

G: Zer gauza dirade oriek?

E: Ez dizadala ori galdetu niri, bada naiz ignorantea; baditu Eleiza Ama Santak Doktoreak, jakingo duenak eranzuten.

M: Ongi diozu; bada Doktoreak bear due eman kontu gure Fede Santuko gauza guziena, eta ez zuk. Zuretzat asko da ematea Artikuluena Kredoa dauden bezela.

**DOKTRINA KRISTIANAREN
BIGARREN PARTEA,
zeñean deklaritzen dan
zer eskatu bear dan,
eta Eliza Ama Santaren Orazioak.**

Ekusi det nola dakizun zer sinistu bear dezun, zeña dan lenengo jakin bear dan gauza; goazen

bigarrenera, zeña dan zer eskatu bear dan jakitea, esan ezazu:

G: Nork esan zuan Aita gurea?

E: Jesu-Kristok bere aotik.

G: Zertako?

E: Guri Orazio egiten erakusteko.

G: Zer da Orazio egitea?

E: Da jasotzea anima Jaungoikoagana, eta eskatzea mesedeak.

G: Aita-gurea esaten dezunean norekin itz egiten dezu?

E: Jaungoiko gure Jaunarekin.

G: Nun dago Jaungoiko gure Jauna?

E: Leku guztian, espezialmente Zeruan, eta Sakramentu Santísimo Aldarekoan.

G: Zein da orazioetan onena?

E: Paternosterra.

G: Zergatik?

E: Zergatik Apostoluak eskatu, eta esan zuan Kristok bere aotik.

G: Zergatik geiago?

E: Zergatik dituan zazpi petizio karidade guztian fundaturik.

G: Zein dirade?

E: Lenengoa, santifikatua izan bedi Zure Izena.

G: Zer eskatzen dezu petizio orretan?

E: Jaungoikoaren Izena izan dedilla ezagutua, eta onratua mundu guztian.

G: Zein da bigarrena?

E: Betor gugana zure Reinua.

G: Zer eskatzen dezu petizio orretan?

E: Reina dezala Jaungoikoak gure animetan emen lurrean graziarekin, eta gero eman dizagula Gloria.

G: Zein da irugarrena?

E: Egin bedi zure borondatea nola Zeruan, ala lurrean.

G: Zer eskatzen dezu petizio orretan?

E: Egin dezagula Jainkoaren borondatea, lurrean gaudenak, Bienabenturaduak Zeruan egiten duen bezela.

G: Zein da laugarrena?

E: Egun iguzu gure eguneroko ogiya.

G: Zer eskatzen dezu petizio orretan?

E: Eman dizagula Jaungoikoak Korputzarentzat mantenu konbeni zaiona, ta animarentzat

graziaren mantenu espiritualak, ta Sakramentuak.

G: Zein da bostgarrena?

E: Barka gizkigutzu gure zorrak guk geren zordunai barkatzen diegun bezela.

G: Zer eskatzen dezu petizio orretan?

E: Barkatu dizagula Jaungoikoak gure pekatuak, guk barkatzen diegun bezela agrabiatu gaituenai, ta gaizki egin diguenai.

G: Zein da seigarrena ?

E: Ez gaitzatzula utzi tentazioan erorten.

G: Zer eskatzen dezu petizio orretan?

E: Ez degigula utzi, Jaungoiko gure Jaunak erorten, eta konsentitzen peusamentu, eta tentazio gaiztoetan.

G: Zein da zazpigarrena?

E: Baizikan libratu gaitzatzu gaitzetik.

G: Zer eskatzen dezu petizio orretan?

E: Libra gaitzala Jaungoiko gure Jaunak animako, eta korputzeko gaitz, eta peligro guztietatik.

G: Zergatik esaten dezu lenengo; Aita gurea, Zeruetan zaudena?

E: Jasotzeko biotza Jaungoikoagana, ta eskatzeko mesedeak humildadearekin, eta konfiantzarekin.

G: Zer esan nai du itz Amen, azkenean añaдитzen dezun ark?

E: Ala izan dedilla.

G: Zer orazio esaten diozkatzu prinzipalmenten Birjiña Soberanari?

E: Abe-Maria, edo Salbea.

G: Esan ezazu: nork esan zuan Abe-Maria?

E: Aingeru San Gabriele, Maria Birjiña salutatzeraz etorri zanean.

G: Nork esan zuan Salbea?

E: Ama Eleiza Santak, zeñak dadukan rezibiturik.

G: Zertako?

E: Mesedeak eskatzeko Aingeruen Erregiña Maria Santisimari.

G: Abe Maria, edo Salbea esaten dezunean, norekin itz egiten dezu?

E: Gure Señora Maria Birjiñarekiñ.

G: Nor da gure Señora Maria Birjiña?

E: Da Señora birtutez, eta graziaz bete bat, zeña dan Jaungoikoaren Ama, eta dagoana Zeruan.

G: Eta Aldarean dagoana nor da?

E: Da Zeruan dagoanaren imajina, ta seme-janza bat.

G: Zertako dago an?

E: Aldarean dagoana ekusi, ta akorda gaitezzen Zeruan dagoanaz, eta zergatik dan aren Imajina, reberenziatu dezagun.

M: Au berau egin bear dezu beste Santuen imajinakin.

G: Egin bear diegu orazio Santuai ere?

E: Bai Jauna, gure medianero edo faborezitzailelai bezela.

G: Zer gauza dirade Aingeruak?

E: Dirade Espiritu Bienabenturadu batzuek, daudenak Zeruan, Jaungoikoa gozatzen.

G: Zertako kriatu zituan Jaungoiko gure Jau-nak?

E: Eternidade guztian alabatu, eta bedeinkatu dezaen.

G: Zertako geiago?

E: Aren ministroak bezela goberna dezaten Eleiza, eta guarda ditzaen gizonak.

G: Beraz badezu zuk Aingeru guardakoa?

E: Bai Jauna badet, eta gizon bakoitzak du bere Aingerua.

M: Izan egiozu bada debozio, eta erregu egiozu egunero. Amen.

DOKTRINA KRISTIANAREN IRUGARREN PARTEA, zeñean deklaratzan dan zer obratu bear dan

Ekusi det nola dakizun zer sinistu bear dezun, eta zer Orazio egin bear dezun; ekusi dezagun oraiñ nola dakizun zer obratu bear dezun, Kristabak bezela esan ezazu: Zein da Jaungoikoaren Legeko lenengo Mandamentua?

E: Jaungoikoa amatzea gauza guztien gañean.

G: Nork amatzen du Jaungoikoa?

E: Aren Mandamentuak guardatzen dituanak.

G: Zer da Jaungoikoa gauza guztien gañean amatzea?

E: Naiago izatea galdu bizitza Jaungoikoa ofenditu baño.

G: Zertara geiago obligatzen du Mandamentu onek?

E: Jaungoikoa bakarrik adoratzera, korputzeko, eta animako reberenzia guztiarekin, sinisten, eta esperatzen duala argan fede osoarekin.

G: Nork egiten du pekatu onen kontra?

E: Idoloak, edo Jaungoiko falsoak adoratzen dituanak, eta aietan sinisten duanak.

G: Eta nork geiago?

E: Aguerroetan, eta gauza superstiziosoetan sinisten duanak.

G: Zein da Bigarrena?

E: Juramentu alferrik ez egitea.

G: Nork egiten du juramentua alferrik?

E: Juramentu egiten duanak egia gabe, justizia bage, eta premia bage.

G: Pekatu da juramentu alferra egitea kriaturakgatik?

E: Bai Jauna; zergatik aetan egiten zaio juramentu Kriadoreari.

G: Zer remedio da ezegiteko juramentu alferrik?

E: Akostunbratzea esatera bai, edo ez, Kristok erakusten digun bezela.

G: Zeiñ da Irugarrena?

E: Jai egunak santifikatzea.

G: Nork santifikatzen ditu jai egunak?

E: Meza osoa entzuten duanak, ta premia bage aetan bearrik egiten eztuanak.

G: Zein da Laugarrena?

E: Aita, eta Ama onratzea.

G: Nork onratzen ditu gurasoak?

E: Obedezitzen dienak, sokorritzen dituanak, eta reberentziatzen.

G: Nor aditzen dirade besterik gurasotzat?

E: Andiagoak edadean, dignidadean, eta gobiernoan.

G: Zein da Bostgarrena?

E: Iñor ez illtzea.

G: Zer agintzen da mandamentu onetan?

E: Ez egitea iñori gaitzik ez itzez, ez obraz, eta ez deseoz.

G: Zein da seigarrena?

E: Lujuriako pekaturik ez egitea.

G: Zer agintzen da mandamentu onetan?

E: Izan gaitezela garbiak, eta kastoak pentsamentuetan, itzetan, eta obretan.

G: Zeiñ da Zazpigarrena?

E: Ez ostutzea.

G: Zer agintzen da mandamentu onetan?

E: Ez kentzea, ez edukitzea, eta ez nai izatea besteren gauzarik Jabearen borondatearen kontra.

G: Zein da Zortzigarrena?

E: Testimonio falsorik ez jasotzea eta gezurrik ez esatea.

G: Zer agintzen da mandamentu onetan?

E: Ez egitea proximoaren kontra juizio gaiztorik, ez esatea, eta ez aditzea aren faltarik.

G: Nork ausitzen du mandamentu au?

E: Razoiaren kontra juzgatzen duanak, fama kentzen duanak, sekretoak deskubritzen duanak, edo gezurra esaten duanak.

G: Zer eragozten da bederatzigarren, eta amargarren mandamentuetan?

E: Deshonestidadearen, eta haziendaren deseanak.

M: Esan itzatzu Ama Eleiza Santaren Mandamentuak.

AMA ELIZA SANTAREN MANDAMENTUAK DIRADE BOST

Lenengoa, Igandeetan, eta beste Jaietan Meza osoa entzutea.

Bigarrena, urtean beiñ gutxienaz Konfesa-tzea, edo lenago, illtzeko peligrorik esperatzen badu.

Irugarrena, Pazkoa Resurreziokoetan Komulgatzea.

Laugarrena, Ama Eleiza Santak agintzen duanean barautzea.

Bostgarrena, Amarrenak, eta Primiziak pagatzea.

G: Zertako dirade Mandamentu oek?

E: Obeto gordetzeko Mandamentu dibinoak.

M: Esan itzatzu Obra Misericordiazkoak.

OBRA MISERIKORDIAZKOAK DIRADE AMALAU: ZAZPI ESPIRITUALAK ETA ZAZPI KORPORALAK

Zazpi Espiritualak dirade oek.

Lenengoa, ez dakienari erakustea. Bigarrena, premia duanari konseju ona ematea. Irugarrena, gaizki egiten duanak korrejitzea. Laugarrena,

injuriak barkatzea. Bostgarrena, triste dagoana konsolatzea. Seigarrena, gure proximoen miseriak, eta flakezak pazienziarekiti sufritzea. Zazpigarrena, biziakgatik eta illakgatik Jaungoikoari erregutzea.

Zazpi korporalak dirade oek.

Lenengoa, enfermoak bisitatzea. Bigarrena, goseak dagoanari jaten ematea. Irugarrena, egarriak dagoanari edaten ematea. Laugarrena, kautiboak erreskatatzea. Bostgarrena, narru gorrian dagoana janitzea. Seigarrena, peregrinoari ostatu ematea: Zazpigarrena, illak enterratzea.

G: Zergatik deitzen zate obra miserikordiazkoak?

E: Zergatik ez diraden zor Justiziaz.

G: Noiz obligatzen due pekatu mortalaren azpian?

E: Gizon diskretoen juizioan, grabeak diraden nezesidadeetan.

DOKTRINA KRISTIANAREN LAUGARREN PARTEA, zeñean deklaratzeko diraden Sakramentu rezibitu bear diradenak

Ekusi det nola dakizun zer sinistu, zer orazio egin, eta zer obratu bear dezun: ekusi dezagun oraiñ nola dakizun zer rezibitu bear dezun, zeñadan azkenekoa: esan itzatzu Ama Eleiza Santaren Sakramentuak.

AMA ELIZA SANTAREN SAKRAMENTUAK DIRADE ZAZPI

Lenengo bostak dirade nezesarioak edo rezibitu bear diradenak obraz, edo deseez, eta oek bage ezin salba diteke gizona, utzitzen baditu menosprezioz: beste biak dirade borondatezkoak. Lenengoa, Bautismoa. Bigarrena, Kofirmazioa. Irugarrena, Penitentzia. Laugarrena, Komunioa: Bostgarrena, Extremaunzioa. Seigarrena, Sazerdotearen Ordena. Zazpigarrena, Matrimonioa.

G: Zer gauza dirade Sakramentuak?

E: Dirade señale batzuek instruitu, edo egin zituanak Jesu-Kristo gure Jaunak emateko guri oekin bere grazia, eta birtuteak.

G: Zer gauza da grazia?

E: Da izate Dibino bat egiten duana gizona Jaungoikoaren Seme, eta Zeruaren heredero.

G: Zer birtute ematen ditue Sakramentuak graziarekin batean?

E: Prinzipalmente iru Teologalak eta Dibinoak.

G: Zeiñ dirade?

E: Fedea, Esperanza, eta Karidadea.

G: Zer gauza da Fedea?

E: Sinistutzea ekusi ez genduana, zergatik Jaungoikoak rebelatu duan.

G: Zer gauza da Esperanza?

E: Esperatzea Gloria, eta ondasun eternoak Jaungoikoaren graziaren, eta gure obra onen medioz.

G: Zer gauza da Karidadea?

E: Amatzea Jaungoikoa gauza guztien gañean, eta gure projimoak, geren buruak bezela, izaten gerala aekin, aiek gurekin izatea nai degun bezela.

G: Zertako izandu zan instituitua Sakramentu Santu Bautismokoa?

E: Kentzeko pekatu orijinala, eta beste bataiatzen danagan arkitzen dan edozeiñ.

G: Zer gauza da pekatu orijinala?

E: Pekatu ura, zeñarekin jaiotzen geraden, heredaturik gure lenengo gurasoetatik.

G: Zertako da Sakramentu Santu Konfirmaziokoa?

E: Konfirmatzeko, eta ipinteko fuerte Bautismoan rezibitu genduan Fedean.

G: Zertako da Sakramentu Santu Penitentziakoa?

E: Bataiatu ezkeru egindako pekatuak barkatzeko.

G: Zer pekatu dirade oriek?

E: Pekatu mortalak prinzipalmente, baita benialak ere.

G: Zer gauza da pekatu mortala?

E: Da esatea, egitea, pensatzea, edo deseatzea zerbait gure Jaungoiko Soberanoaren Lege santuaren kontra gauza grabean.

G: Zergatik deritza mortala?

E: Zergatik iltzen duan egiten duanaren anima.

G: Zer parte ditu Penitenziak kentzeko pekatu mortala?

E: Iru jauna.

G: Zeiñ dira?

E: Biotzeko Kontrizioa, aozko Konfesioa, eta obrazko Satisfazioa.

G: Pekadoreak pekatu mortalean erorten dan guztian bear du Konfesatu bereala, pekatua barkatzeko?

E: Ongi izango lizateke, baña ez da nesesario.

G: Zer egin bear du bada?

E: Bere pekatuen dolore egiazkoa edukitzea, emendatzeko, eta Konfesatzeko proposituarekin Ama Eleiza Santak agintzen duanean.

G: Zer da pekatu beniala?

E: Da pekatu mortalaren disposizio bat.

G: Zergatik deritza beniala?

E: Zergatik erraz erorten dan gizona artan, eta erraz barkatzen dan.

G: Zenbat gauzगतik barkatzen da?

E: Bederatzigatik.

G: Zeiñ dirade?

E: Lenengoa, Meza entzuteagatik. Bigarrena, Komulgatzeagatik. Irugarrena, Konfesio Jenera-lagatik. Laugarrena, Obispoaren Bendizioagatik. Bostgarrena, ur Bedinkatuagatik. Seigarrena, ogi Bedinkatuagatik. Zazpigarrena, Aita gurea esa-teagatik. Zortzigarrena, Sermoia aditzeagatik. Bederatzigarrena, petxuko golpeagatik, eska-tzen zaiola barkazioa Jaungoiko gure Jaunari.

G: Zertako da Sakramentu Santu Komunio-koa?

E: Rezibitzen degula bear dan disposizioare-kin, izan dedin gure animen mantenimentua, eta aumenta dizagun grazia.

G: Zer rezibitzen dezu Sakramentu Santu onetan?

E: Kristo gure Jauna Jaungoiko, eta Gizon egiazkoa, zeña dagoan berdaderamente Sakra-mentu Santísimo onetan.

G: Zertako da Sakramentu Santu Extremaun-ziokoa?

E: Iru gauzatarako.

G: Zeiñ dirade?

E: Lenengoa, bizitza gaizto pasatuaren arras-toak, ta relikiak kentzeko. Bigarrena, animari

indarra emateko demonioaren tentazioen kontra. Irugarrena, korputzari osasuna emateko, konbeni bazaio.

G: Zertako da Sakramentu Santu Ordenakoa?

E: Konsagratzeko, eta Ordenatzeko Eleizako Ministro dignoak, nola diraden Sazerdoteak, Diakonoak, eta beste gañerakoak.

G: Zertako da Sakramentu Santu matrimonioakoa?

E: Ezkontzeko, eta emateko ezkonduai grazia, onekin bizi ditezten pakean, eta kriatu ditzeen semeak Zerurako.

PEKATU KAPITALAK DIRADE ZAZPI

Lenengoa, Soberbia. Bigarrena, Abarizia. Irugarrena, Luxuria: Laugarrena, Ira. Bostgarrena, Gula. Seigarrena, Enbidia. Zazpigarrena, Nagitasuna.

G: Zergatik deitu diezu pekatu Kapitalak, zazpi komunmente, edo geienean mortalak esaten zatenai?

E: Deitu diet Kapitalak, zergatik diraden beste bizio, aietatik jaiotzen diraden buruak, iturriak, eta sustraiak bezela; eta mortalak deitzea ez

dator aĩn ongi, bada askotan ez dirade benialak
baño geiago.

G: Noiz dirade mortalak?

E: Jaungoikoaren, eta proximoaren karidadearen kontra diradenean.

G: Noiz dirade karidadearen kontra?

E: Aekin ausitzen danean Jaungoikoaren edo Eleizaren Mandamenturen bat gauza grabean.

G: Zer da Soberbia?

E: Besteak baño geiago izateko apetitu desordenatu bat.

G: Zer da Abarizia?

E: Haziendaren apetitu, edo deseo desordenatu bat.

G: Zer da Luxuria?

E: Aragiaren gusto zikiñen apetitu desordenatu bat.

G: Zer da Ira?

E: Benganzaren deseo desordenatu bat.

G: Zer da Gula?

E: Jateko, eta edateko deseo desordenatu bat.

G: Zer da Enbidia?

E: Besteren onaren damutasuua.

G: Zer da Nagitasuna?

E: Obra onak egiteko animoaren falta.

ZAZPI BIZIO OIEN KONTRA DIRADE ZAZPI BIRTUTE

Soberbiaren kontra, humildadea. Abariziaren kontra, liberalidadea. Luxuriaren kontra, kastidadea. Iraren kontra, pazienza. Gularen kontra, tenplanza. Enbidiaren kontra, karidadea. Nagitasunaren kontra, dilijenzia.

ANIMAREN ETSIAK, ZEÑETATIK IGES EGIN BEAR DEGUN, DIRADE IRU

Lenengoa, Mundua. Bigarrena, Demonioa. Irugarrena, Aragia.

G: Nola iges egiten da Munduagandik?

E: Despreziatzen dirala aren ponpak, eta banidadeak.

G: Nola iges egiten da Demonioagandik?

E: Orazioarekin, eta humildadearekin.

G: Nola iges egiten da Aragiagandik?

E: Mortifikazioarekin, bijiliakin, eta barabakin. Ta au da etsairik andiena; zergatik aragia ezin

apartatu degun guregandik, baña bai Mundua, ta Demonioa.

BIRTUTE TEOLOGALAK **DIRADE IRU**

Lenengoa, Fedea. Bigarrena, Esperanza. Iru-
garrena, Karidadea.

BIRTUTE KARDINALAK **DIRADE LAU**

Lenengoa, Prudenzia. Bigarrena, Justizia. Iru-
garrena, Fortaleza. Laugarrena, Tenplanza.

KORPUTZAREN SENTIDUAK **DIRADE BOST**

Lenengoa, ekustea begiakin. Bigarrena, adi-
tzea belarriakin. Irugarrena, gustatzea aoarekin.
Laugarrena, usai egitea sudurrarekin. Bostgarre-
na, ukitzea eskuarekin.

G: Zertako eman zigun Jaungoikoak senti-
duak, eta beste mienbroak?

E: Guziakin serbitzeko aren Dibina Majesta-
dea.

ARIMAREN POTENZIAK

DIRADE IRU

Memoria, Entendimentua, eta Borondatea.

G: Zertako eman zigun Jaungoikoak Memoria?

E: Akordatzeko arzaz, eta aren benefizioaz.

G: Zertako eman zigun Entendimentua?

E: Ezagutzeko Jaungoikoa, eta argan pentsatzeko.

G: Zertako eman zigun Jaungoikoak Borondatea?

E: Ama dezagun ontasun guzia duana bezela, eta projimoa argatik.

ESPIRITU SANTUAREN DOAIK

DIRADE ZAZPI

Lenengoa, Jakinduriako Doaia. Bigarrena, Entendimentuko Doaia. Irugarrena, Konsejuko Doaia. Laugarrena, Fortalezako Doaia. Bostgarrena, Zienziako Doaia. Seigarrena, Piedadeko Doaia. Zazpigarrena, Jaungoikoaren bildurtasuneko Doaia.

ESPIRITU SANTUAREN FRUTUAK

DIRADE AMABI

Lenengoa, Karidadea. Bigarrena, Pakea. Iru-
garrena, Animoaren anditasuna. Laugarrena,
Benignidadea. Bostgarrena, Fedea. Seigarrena,
Kontinenzia. Zazpigarrena, Gozo espiritualak. Zor-
tzigarrena, Pazientzia. Bederatzigarrena, Ontasu-
na: Amargarrena, Mansedunbrea. Amaikagarre-
na, Modestia. Amabigarrena, Kastidadea.

BIENABENTURANZAK

DIRA ZORTZI

1. Bienabenturaduak pobreza eskojitzen due-
nak; zergatik aena dan Zeruetako Reinua.
2. Bienabenturaduak mansoak; zergatik aek
izango dirade lurraren jabeak.
3. Bienabenturaduak negar egiten duenak;
zergatik aek izango dirade konsolatuak.
4. Bienabenturaduak Justiziaren gosea eta
egarria duenak; zergatik aek izango diraden kon-
tentatuak.
5. Bienabenturaduak miseriakordioak; zer-
gatik aek alkantzatuak due miseriakordia.

6. Bienabenturaduak bioz garbia duenak; zergatik aek ikusiko due Jaungoikoa.

7. Bienabenturaduak pakeosoak; zergatik aek izango dirade deituak Jaungoikoaren semeak.

8. Bienabenturaduak Justiziagatik persekuzioa padezitzen duenak; zergatik aena da Zeruetako Reinua.

G: Zer esan dezu oraiñ?

E: Zortzi Bienabenturanzak.

G: Zer gauza dirade Bienabenturanzak?

E: Birtuteen, eta Espiritu Santuaren Doaien obrarik onenak.

G: Nor dirade pobreza eskojitzen duenak?

E: Nai eztuenak honrarik eta aberastasunik, txikiak izanagatik ere.

G: Nor dirade mansoak?

E: Irarik eztuenak, ezta ere kasi aren mubimenturi.

G: Nola dirade lurraren jabeak?

E: Beren buruen jaunak bezela.

G: Nor dirade negar egiten duenak?

E: Gustoak utzitzen dituenak, txikiak izanagatik ere.

G: Nor dirade justiziaren gosea, ta egarria duenak?

E: Kuidadoarekin obligazio duen guzia egiten duenak.

G: Nor dirade Miserikordiosoak?

E: Piedade guzia duenak arrotzakin ere.

G: Nor dirade biotz garbia duenak?

E: Beren pasio guztietan mortifikatzen diradenak.

G: Nor dirade Pakeosoak?

E: Pakea obratzen duenak beretan, eta besteetan.

G: Nor dirade justiziagatik padezitzen dutenak?

E: Justizian firme daudenak, persegituak izanagatik ere.

G: Zergatik deitzen zaie oei Bienabenturanzak?

E: Zergatik oetan dagoan bizitza onetako Bienabenturanza, eta bestekoaren esperanza.

G: Jaungoikoak eraman gaitzala guziok ara. Amen.

KONFESIO JENERALA

Ni pekataria konfesatzen naitzaio Jaungoiko guziz Poderosoari, Santa Maria beti Birjiñari, San Migel Aingeruari, San Juan Bautistari, San Pedro, eta San Pablo Apostoluai, Santu guztiai, ta zuri Aita Espirituala; zeren egin dedan pekatu pensamentuz, itzez, ta obraz, nere kulpaz, nere kulpaz, guztiz nere kulpaz andiz. Argatik erregutzen diot Santa Maria beti Birjiñari, San Migel Aingeruari, San Juan Bautistari, San Pedro, ta San Pablo Apostoluai, Santu guztiai, eta zuri Aita Espirituala, erregutu-giozu nigatik Jangoiko gure Jaunari. Amen.

KONZIENZA EGUNERO ESAMINATZEKO MODUAK DITU BI TENPORA, TA BOST PUNTU

LENENGO TENPORA

Goizean esnatzen danean jasoko du biotza Jaungoikoagana, eta ofrezituko diozka egun artako pensamentuak, itzak, eta obrak; proponi-

tuko du, eta artuko du propositua ez ofenditzeko
aren Dibina Majestadea, eta eskatuko dio au
kunplitzeko grazia.

BIGARREN TENPORA

Arratsean oera etzin baño lenago, jarriko da
belauniko, esango du Konfesio Jenerala, eta
egingo du emen esaten dana.

LENENGO PUNTUA

Emango diozka graziak Jaungoikoari mesede
rezibitu dituanakgatik, nola diraden, zergatik
kriatu zuan, redimitu zuan, Kristau egin zuan,
eta konserbatzen duan, partikularmente berari
egin diozkan mesede prinzipalakgatik, zeñakga-
tik zor dion ezaguera partikularra.

BIGARREN PUNTUA

Eskatuko dio aren Dibina Majestadeari argia,
ta grazia ezagutzeko egun artako faltak.

IRUGARREN PUNTUA

Juango da pensatzen esnatu zanetik ordu
artaraño, zeñean arkitzen dan, pensatzen duala

ordutik ordura, pensamentuz, itzez, ta obraz zer egin, esan, eta pensatu duan.

LAUGARREN PUNTUA

Aterako ditu garbiro obra on egin dituanak, eta emango diozka graziak Jaungoikoari aekgatik.

BOSTGARREN PUNTUA

Artuko du damutasuna biotzetik egin dituen falta guztiena, eta eskatuko dio Jaungoikoari aen barkazioa, proponitzen duala emendatzea, ta egingo du Akto Kontriziozkoa segitzen dan moduan.

AUTO KONTRIZIOZKOA

Nere Jesu-Kristo Jauna, Jaungoiko, eta Gizon egiazkoa, nere Kriadorea, eta Redentorea. Zu zeradena izanagatik, eta zergatik amatzen zaitudan beste gauza guziak baño geiago, damu det Jauna, nere biotz guztitik Zure Majestadea ofenditua: artzen det propositu firmea ez geiago

pekaturik egiteko, eta apartatzeko Zure Ofensa-ko okasio guztietatik, eta konfesatzeko, eta kunplitzeko penitenzia: ofrezitzen dizut, Jauna, nere bizitza, obrak, eta trabajuak nere pekatuen satisfaziorako, ta nola suplikatzen dizudan, ala dadukat konfianza Zure ontasun, ta miserikordia infinitoagan barkatuko dirazula Zure Odol prezioso, Pasio, eta Eriotzaren merezimentuakgatik, eta emango dirazula grazia emendatzeko, eta perseberatzeko nere bizi guztian. Amen.

ENKARNAZIOKO MISTERIOAREN ESPLIKAZIOA

G: Zetan konsistitzen da Enkarnazioko Misterioa?

E: Trinitade Santisimoko bigarren Persona, zeña dan Semea, Gizon egitean Maria Santisimaren entraña garbietan, gizonaren obra gabe, baidikan Espiritu Santuaren obraz, gelditzen zala Señora au Birjiña, Semea egin baño leen, egitean, eta egin ezker.

G: Zer obra egin zuan Espiritu Santuak?

E: Formatu zuan Maria Santisimaren entrañetako odol garbiarekin Jesu-Kristo gure Jaunaren Korputza, kriatu zuan Anima, unitu zuan Anima Korputzarekin, Anima, ta Korputza unitu zituan Semearen Personarekin, eta au izandu zan egitea Jainkoa gizon.

G: Obra marabiloso au Espiritu Santuak bezela, etzuen egin Aitak, eta Semeak ere?

E: Bai Jauna, irurak egin zuten.

G: Zergatik esaten da bada izandu zala Espiritu Santuaren Obra?

E: Zergatik izan zan amoriozko obra, eta amorioa atribuitzen zaio Espiritu Santuari; Aitari Poderea, eta Semeari Sabiduria bezela; baña iru Personak, Jaungoiko guziz poderoso batek bezela, egin bazeben ere obra soberano au, Semeak bakarrik artu zeban Gizonaren naturaleza; one-gatik ditu Semeak bi naturaleza, bata Dibinoa Jaungoikoa dan partetik, eta bestea Humanoa, Gizona dan partetik; eta Aitak, eta Espiritu Santuak ez due Jaungoikoaren naturaleza baizik.

G: Zenbat entendimentu ditu Kristok?

E: Bi, bata Dibinoa, Jaungoikoa dan partetik, eta bestea Humanoa, Gizona dan partetik.

G: Zenbat borondate ditu Kristok?

E: Bi, bata Dibinoa Jaungoikoa dan partetik, eta bestea Humanoa, Gizona dan partetik.

G: Zenbat persona arkitzen dirade Kristogan?

E: Bat bakarra, ta au da Persona Dibinoa, bada Persona humanorik ez da arkitzen Kristogan.

G: Zenbat memoria ditu Kristok?

E: Bat, eta au da gizona dan partetik, zergatik Jaungoikoa dan partetik gauza guziak dauzka presente, ta ez du memoriaren bearrik.

G: Kristok badu Aitarik, edo Amarik?

E: Jaungoikoa dan partetik badu Aita, zeña dan Aita Eternoa, Trinitade Santisimoko lenengo Persona, ta ez du Amarik; eta Gizona dan partetik du Ama, zeña dan Maria Santisima, eta ez du Aitarik.

G: Kristo, Jaungoikoa dan partetik, edo Gizona dan partetik izandu zan lenago?

E: Jaungoikoa dan partetik izandu zan askoz lenago, Gizona dan partetik baño; zergatik Kristok, Jaungoikoa dan partetik ez du prinzipiorik, ta denborarik, Jaungoikoa izandu ez danik; baña Gizona dan partetik izandu da denbora Kristo izandu eztana.

G: Nun dago Kristo?

E: Jaungoikoa dan partetik dago leku guzian; baña gizona dan partetik eztago Zeruan, ta Aldareko Sakramentu Santuan baizik.

SAKRAMENTU SANTU

ALDAREKOAREN

ESPLIKAZIOA

G: Zer dago Aldareko Sakramentu Santuan?

E: Dago Jesu-Kristo gure Jauna Jaungoiko eta Gizon egiazkoa Zeruan dagoan bezela.

G: Zer dago Hostian konsagratu baño lenago?

E: Ogi piska bat.

G: Eta zer dago konsagratu ezkeror?

E: Dago Jesu-Kristo gure Jaunaren Korputza. Ta nola korputza dagoan bizirik, eta uniturik Jaungoikoaren Semearen Personarekin, badago Odola ere, baita Anima, Jaungoikotasuna, ta iru Persona Dibinoak ere.

G: Zer dago Kalizan konsagratu baño lenago?

E: Ardo purua, ur tanto batekin.

G: Eta zer dago Konsagratu ezkeror?

E: Dago Jesu-Kristo gure Jaunaren Odola: eta nola dagoan Korputzarekin uniturik, badago Korputza ere, baita Anima, Jaungoikotasuna, eta iru Persona Dibinoak ere, alako moduan nun Jesu-

Kristo guztia dago Hostian, ta Jesu-Kristo guztia dago Kalizan.

G: Ekusten da Jesu-Kristo gure Jauna Sakramentu Santu onetan?

E: Ezta ekusten ogiaren, ta ardoaren kolorea, ta beste akzidenteak baizik; baña an ez dago ogirik, eta ardorik Sazerdoteak Konsagratu ezke-ro.

G: Hostia konsagratuaren erdia, edo parte bat rezibitzen duanak, rezibitzen du Jesu-Kristo guztia?

E: Guztia rezibitzen du enteroa, edo osoa; bada aren Dibina Majestadea ainbeste dago Hostiaren parterik txikienean, nola Hostia guztian; zergatik partitzen badu ere Sazerdoteak Hostia konsagratua puska askotan, ez da partitzen Jesu-Kristo gure Jauna; baizikan gelditzen da osoa parte bakoitzean; aiñ aundia, edo osoa parte txikian, nola andian.

G: Zenbat gauza bear dira ondo Komulgatzeko?

E: Iru, jauna.

G: Zeiñ dirade?

E: Lenengoa, zer rezibitu bear duan jakitea. Bigarrena, barau naturalean egotea. Irugarrena, Jaungoikoaren grazian egotea.

ORAZIOA

KOMULGATZERA DIJOANEAN ESATEKO

Nere Jauna, eta Jesus dulzea, nik deseatzten det zure Dibina Majestadea rezibitzea espiritu garbi, eta karidadearekin, zeñarekin rezibitu zinduan zure Ama Birjiña Santisimak, eta Zeruko Santu guztiak.

ORAZIOA

KOMULGATU EZKERO ESATEKO

O Zeruetako eta lurreko Jaun Soberanoa! Zer merezimentu izandu det nik etortzeko nigana aiñ Jaun aundia? Bedinkatua izan dedilla zure Ontasuna, eta Misericordia; Zergatik egiten diozun ainbeste mesede zure kriatura oni. Aingerua,k eta kriatura guztiak bedeinka zaitzatela, Jauna, piedade aundi onegatik.

ESPLIKATZEN DIRADE KONFESIO ONAREN KONDIZIOAK

G: Zenbat dirade Konfesio onaren kondizioak?

E: Bost jauna.

G: Zein dirade?

E: Lenengoa, Examiña. Bigarrena, Dolorea. Irugarrena, Propositua. Laugarrena, Konfesioa. Bostgarrena, Satisfazioa.

G: Zer gauza da examiña?

E: Pekatu egin dituanak memoriara ekartzea, konfesatzeko guztiak.

G: Zenbat denbora bear da pekatuak memoriara ekartzeko?

E: Ez da denbora seinalaturik, baizikan bere kapazidadearekin, eta denbora konfesatu gabe egon danarekin konforme, bear du artu denbora nezesitatzen duana; Ta ipiñi negozio inportanzi andiko batean ipinten dan kuidadoa, zergatik au da egitekorik inportanteena.

G: Nondik ekarriko dituzu pekatuak memoria-ra?

E: Jainkoaren Legeko Mandamentuetatik, ta Eliza Ama Santarenetatik, konsideratzen duala, zer Mandamenturen kontra egin duan pekatu, eta zenbat bider, bere personaren estadu, ofizio edo enpleoarekin konforme, ateratzeko onela garbiro kontua pekatu pensamentuz, itzez, eta obraz egin dituanenaz.

G: Zer gauza da Dolorea?

E: Jaungoikoa ofenditutako damutasuna.

G: Zenbat modutan da Dolorea?

E: Bitan, batari deritza Kontrizioa, ta besteari Atrizioa.

G: Zer gauza da Kontrizioa?

E: Da, Jaungoikoa ofenditutako damutasuna, izanagatik aren Dibina Majestadea dan bezin ona, santua, eta amablea.

G: Zer gauza da Atrizioa?

E: Jaungoikoa ofenditutako damutasuna pekatuaren itsusitasunagatik, edo zergatik pekatua dala mediante, aparta gaitzakean Zeruko Gloriatik, eta kastigatu Infernuko penakin.

G: Zein da dolore oetan bietan onena?

E: Kontrizioa da askoz ohea Atrizioa baño; zergatik akto Kontriziozko egiazkoa egiten duanari, konfesatzeko proposituarekin barkatzen zaizka pekatuak konfesatu baño lenago, eta akto au egiten duan instante artan gelditzen da Jaungoikoaren grazian, baña Atriziozko aktoa egiten duanari etzaizka barkatzen pekatuak konfesioko Sakramentuarekin batean baizik; eta onegatik balijoaz Konfesatzera persona bi, bata Kontrizioaren dolorearekin, eta bestea Atrizioarekin eta biak illko balira konfesatu baño lenago, Kontrizioarekin dijoana salbatuko lizateke, eta kondenatuko lizateke Atrizioarekin dijoana.

G: Pekatu mortalean dagoana, arkituko balitz iltzeko peligroan, eta konfessore gabe, nola libratuko lizateke pekatutik?

E: Akto Kontriziozko bat eginda.

G: Zer gauza da propositua?

E: Da determinazio firme bat ez bere bizitzako denbora guztian beñere pekaturik egiteko, eta apartatzeko pekatu egiteko okasio guzietatik.

G: Apartatzen ez danak pekatu egiteko okasiotik, apartatu al ditekeala, daduka propositu egiazkoa?

E: Ez jauna, baizikan falsoa.

G: Zer aditzen dezu Konfesioagatik?

E: Konfesatzea pekatu mortal guziak utzi gabe batere lotsaz konfesatu gabe.

G: Bada pekatu benialak konfesatzeko obligaziorik?

E: Obeago da konfesatzea, baño ez da obligaziorik.

G: Pekatua mortal bat konfesatzea aztutzen bazaio, egingo du Konfesio ona?

E: Egingo du Konfesio ona ezpazaio aztutzen examiñaren faltaz, baña izango du obligazioa konfesatzeko urreneko konfesioan pekatu aztutzen zaiona.

G: Pekatua mortal bat lotsaz konfesatu gabe utzitzen debanek, salba diteke beste penitentziarekin?

E: Ezin salba diteke egingo balitu ere Santu guztiak egin zituen baño penitentzia geiago.

G: Aurkitzen bada pekataria pekatu txit grabe, eta itsusi batekin, edo askorekin billatuko du erremedioa Erromara juan gabe?

E: Edozeiñ konfessorek billatuko dio erremedioa Erromara juan gabe.

G: Akusa dezake Konfessoreak penitentea Inksiziora?

E: Ezin akusa dezake bizirik dagoala erreko balute ere.

G: Beraz ez da eskusarik batere, pekatuak konfesatu gabe utzitzeko?

E: Ez jauna, eta konfesatzen eztituana bere kulpaz kondenatuko da erremedio gabe.

G: Zer gauza da satisfazioa?

E: Pagatzea Penitenziako obrakin pena, pekatuakgatik zor dana.

G: Zertan konsistitzen da satisfazio au?

E: Konfessoreak ematen duen penitentzia azeptatzean, eta kunplitzean.

G: Penitentzia azeptatzen duanak, kunplitzeko intenzioarekin, egiten du konfesio ona, ezpadu kunplitzen?

E: Bai jauna, baño kunplitu gabe utzitzen duan penitentzia grabea bada, egiten du pekatu

mortala, ta gelditzen da obligazioarekin, pekatu
au konfesatzeko, urreneko konfesioan.

ORAZIOA

KONFESATZERA DIJOANEAN ESATEKO

Jaun altu, ta Soberanoa, eta Jaungoiko eter-
noa, Aita, eta Semea, eta Espiritu Santua. Nik
sinisten det firmemente, emango diezula pre-
mioa onai, eta kastigua gaiztoai. Dadukat nere
pekatu guzien damutasuna Zu zerana izanaga-
tik, eta zergatik amatzen zaitudan beste gauza
guztiak baño geiago. Proponitzen det firmeza
guziarekin emendatzea Zure grazi Dibinoarekin,
eta nai det kunplitu penitenzia Konfesoreak
ematen didana. Eta dadukat esperanza Zure
ontasun, eta miserikordia infinitoagan barkatuko
dirazula, eta salbatuko nazula, nere Jesu-Kristo
Jaunaren merezimentu andiakgatik. Amen.
Jesus.

ORAZIOA

KONFESATU EZKERO ESATEKO

Ematen diozkat grazia asko nere Jesu-Kristo
Jaunari, zergatik utzi ziran onen erremedio erra-

za, eta suabea nere pekatuen barkazioa alkanza-
tzeko, eta proponitzen det ez geiago aren Dibina
Majestadea ofenditzea.

AKTO FEDEKO, ESPERANZAKO ETA KARIDADEKOAK, ZEÑAK EGIN BEAR DIRADEN URTEAN BEIN GUTXIENAZ

AKTO FEDEKOA

Sinisten det dala Jaungoiko egiazko bat, eta iru Persona diferenteak, zeñak diraden Aita, eta Semea, eta Espiritu Santua. Sinisten det Trinidade Santisimoko bigarren Persona egin zala Gizon Maria Santisimaren Entraña garbietan, Espiritu Santuaren obraz, ta birtutez, gelditzen zala Señora Soberana au Birjiña, Semea egiñ baño leen, egitean, eta egin ezkerro. Sinisten det Jaun onek padezitu zuala, ta ill zala gu salbatzeagatik, piztu zala illen artetik irugarren egunean, igo zana Zeruetara, eta etorriko dala biziak, eta illak juzgatzera: au da, onak premiatzera, eta gaiztoak kastigatzera. Sinisten det Aldareko Sakramentu Santuan dagoala Jesu-Kristo gure Jauna,

Jaungoiko, eta Gizon egiazkoa Zeruan dagoan bezela. Sinisten det Ama Eliza Santa Katolika, Erromakoak sinisten duan guztia, eta Fede one-tan nai det bizi, eta ill.

AKTO ESPERANZAKOA

Dadukat esperanza Jaungoikoagan, barkatu-ko dirala nere pekatu guztiak, eta emango dira-la bere grazia, eta gloria, bere Miserikordia infi-nitoagatik, Jesu-Kristo nere Jaunaren merezi-mentuakgatik, ta aren Ama Santisimaren erre-guakgatik, egiten badet nere partetik obligazio dedana, eta egin dezakedana, zeña dan peniten-zia egiazkoa.

AKTO KARIDADEKOA

Amatzen det Jaungoikoa beste gauza guztiak baño geiago, eta naiago ditut galdu guziak aren Dibina Majestadea baño. Eta nai nuke amatu, mundnko Justu guziak, eta Zeruko Bienabentura-

duak, eta Serafin guziak amatzen duen bezela. Eta posible balitz nai nuke amatu, beraren Ama, ta nere Señora Maria Santisimak amatzen duan bezela. Ez amatua, ofenditua, izatea ainbeste ofenditzen dutenak, eta guztiak ez amatzea aren Dibina Majestadea, bera dana izanagatik, damu det nere biotz guztitik, eta proponitzen det emendatzeko, aren grazia mediante dala. Amen.

MARIA SANTISSIMAREN LETANIA

Kyrie eleison.

Christe eleison.

Kyrie eleison.

Christe audi nos.

Christe exâudi nos.

Pater de Coelis Deus.

Miserere nobis.

Fili Redemptor Mundi Deus.

Miserere nobis.

Spiritu Sancte, Deus.

Miserere nobis.

Sancta Trinitas unus Deus.

Miserere nobis.

Sancta Maria.

Ora pro nobis.

Sancta Dei Genitrix.

Ora pro nobis.

Sancta Virgo Virginum.

Ora pro nobis.

Mater Christi.

Ora pro nobis.

Mater Divinae Gratiae.

Ora pro nobis.

Mater Purissima.

Ora pro nobis.

Mater Castissima.

Ora pro nobis.

Mater Inviolata.

Ora pro nobis.

Mater Intemerata.

Ora pro nobis.

Mater Immaculata.

Ora pro nobis.

Mater Amabilis.

Ora pro nobis.

Mater Admirabilis.

Ora pro nobis.

Mater Creatoris.

Ora pro nobis.

Mater Salvatoris.

Ora pro nobis.

Virgo Prudentissima.

Ora pro nobis.

Virgo Veneranda.

Ora pro nobis.

Virgo Predicanda.

Ora pro nobis.

Virgo Potens.

Ora pro nobis.

Virgo Clemens.

Ora pro nobis.

Virgo Fidelis.

Ora pro nobis.

Speculum Justitiae.

Ora pro nobis.

Sedes Sapientiae.

Ora pro nobis.

Causa nostrae laetitiae.

Ora pro nobis.

Vas Spirituale.

Ora pro nobis.

Vas Honorabile.

Ora pro nobis.

Vas Insigne Devotionis.

Ora pro nobis.

Rosa Mistica.

Ora pro nobis.

Turris Davidica.

Ora pro nobis.

Turris Eburnea.

Ora pro nobis.

Domus Aurea.

Ora pro nobis.

Foederis Arca.

Ora pro nobis.

Janua Coeli.

Ora pro nobis.

Stella Matutina.

Ora pro nobis.

Salus Infirmorum.

Ora pro nobis.

Refugium Peccatorum.

Ora pro nobis.

Consolatrix Afflictorum.

Ora pro nobis.

Auxilium Cristianorum.

Ora pro nobis.

Regina Angelorum.

Ora pro nobis.

Regina Patriarcharum.

Ora pro nobis.

Regina Prophetarum.

Ora pro nobis.

Regina Apostolorum.

Ora pro nobis.

Regina Martirum.

Ora pro nobis.

Regina Confessorum.

Ora pro nobis.

Regina Virginum.

Ora pro nobis.

Regina Sanctorum omnium.

Ora pro nobis.

Agnus Dei, qui tollis peccata mundi.

Parce nobis Domine.

Agnus Dei, qui tollis peccata mundi.

Exaudi nos Domine.

Agnus Dei, qui tollis peccata mundi.

Miserere nobis.

V. Ora pro nobis Sancta Dei Genitrix. R. *Ut digni efficiamur promissionibus Christi.*

OREMUS

Gratiam tuam quaesumus Domine, mentibus nostris infunde, ut qui Angelo nunciante Christi Filij tui incarnationem cognovimus, per Passio-

nem ejus, & Crucem ad Resurrectionis Gloriam
perducamur. Per eundem Christum Dominum
nostrum. Amen.

FIN